

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

29/2020 Foru Agindua, otsailaren 6koa, onesten duena Arabako San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren 2020ko jaiak iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak egoki deritzo iragarki kartelaren lehiaketa publikorako deia egiteari, Araban 2020an San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren egunak ospatzeko jaiak direla-eta antolatuko diren ekitaldien berri behar bezala emateko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren 2020ko jaiak iragartzeko kartelaren lehiaketarako deialdia, gehienez ere 2.500 euroko zuzkidura duena.

Bigarrena. Deialdi hau arautuko duten oinarriak onestea, zeintzuk espedienteari erantsita baitaude.

Hirugarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldira gastuen aurrekontuko 70.1.05.73.02.226.09.05 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.424) ordainduko da.

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2020ko otsailaren 6a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M^a INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

Arabako San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren 2020ko jaiak iragarriko dituen kartelaren lehiaketarako deialdia

Oinarriak

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Arabako San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren 2020ko jaiak iragarriko dituen kartela diseinatzea.

Bigarrena. Parte hartzaileen betekizunak

Sari honetara edozein pertsona fisiko aurkez daiteke, edozein dela ere haren nazionalitatea edo bizilekua.

Hirugarrena. Hautaketa prozesua

a) Lehenengo fasea. Hautagaiak DOSIER baten bidez aurkeztea.

Hautagai bakoitzak DOSIER bat aurkeztuko du, oinarri hauetako I. eranskinaren arabera. Han, 3-5 ilustrazio edo diseinu egongo dira, eta haietatik 2, behintzat, kartelak izan beharko dira. Kartelak lehenago egindako lanetakoak edo simulazioak izan ahalko dira. Xedea da balioetsi ahal izatea arte lanaren azkeneko emaitzaren kalitatea eta hautagaiak daukan estiloa edo bere gaitasunak ilustrazio eta/edo diseinu lanean. Lanak sinatu gabe egon beharko dira dossierrean. Baldin eta edozein sinadura edo marka digital egoten bada erakusten duena nor den hautagaia, hura automatikoki kanporatuko da lehiaketatik.

Gainera, fitxategi elektronikoa bat emango da pdf formatuan gero erabiltzeko oinarri hauetako II. eranskinaren arabera, eta han hautagaiaren datu pertsonalak jasoko dira. Epaimahaiak ez du izango hautagaien informazio pertsonalik, lehenengo fase honetako epaia eman arte.

Datu pertsonalak emateaz gain, zeinak II. eranskinaren bidez aitortuko baitira, han ageri den zinpeko adierazpena ere bete behar da, eta deialdi hau arautzen duten baldintzak onartu, dossierrean aurkeztu diren lanak jatorrizkoak direla eta hautagaiak egin dituela berretsi, eta berariazko baimena emango da Arabako Foru Aldundiak datu pertsonalen tratamendua egin dezan sari hau kudeatzeko.

II. eranskina zinpeko adierazpena bete gabe bidaltzen duena lehiaketatik kanpo geratuko da automatikoki.

Mezu elektronikoa bat bidaliko da kartel_lehiaketa@araba.eus helbidera, era honetan:

I. Mezuaren gaia: DOSIERRA-(jarri izengoitia).

Adibidez: DOSIERRA-Alaiza.

II. Bi fitxategi erantsi beharko dira:

1. Dosier fitxategi elektronikoa, pdf formatuan, oinarri hauetako I. eranskinaren arabera, gehienez ere 10mb-ko tamainarekin (bertsio digitala pantailan ikusteko), eta eranskin horri eskema honen arabera jarriko zaio izena: DOSIERRA-(jarri izengoitia).pdf.

Adibidez: DOSIERRA-Alaiza.pdf.

2. Datu pertsonalak fitxategi elektronikoa, pdf formatuan, oinarri hauetako II. eranskinaren arabera, eta eranskin horri eskema honen arabera jarriko zaio izena: II. ERANSKINA-(jarri izengoitia).pdf.

Adibidez: II. ERANSKINA-Alaiza.pdf.

Oinarri hauetan azaldutako datu ereduaren arabera bidaltzen ez diren mezu elektronikoak prozesutik kanpo geldituko dira. Kultura eta Kirol Sailak ez du erantzukizunik izango, baldin eta dosierak erantsita dauzkaten mezu elektronikoak bidaltzeari eragin diezaiokeen eta hirugarrenei egotz dakiekeen edozein gorabehera gertatzen bada.

b) Bigarren fasea. Bost hautagai aukeratzea.

Profesionalen epaimahai batek bost finalista zehaztuko ditu (eta erreserban egongo diren beste hiru, lehentasun ordenaren arabera), prozesuarekin jarraitzeko bigarren fase honetan, zeinetan hautatutako pertsona bakoitzak kartel bat egin beharko baitu.

Kartel hori bukatuta, erdi bukatuta edo zirriborroan aurkeztu ahalko da, sortzaileak nahi duen moduan, baldin eta kartelaren estiloa eta konposizioa argi erakusten badu; bai eta kolore paleta eta zein teknika erabiliko duen ere.

Testu hauek sartu behar dira kartelean:

ARABAKO JAIK San Prudentzio eta Estibalizko Andre Maria 2020ko apirilaren 28a eta maiatzaren 1a.

FIESTAS DE ÁLAVA San Prudencio y Nuestra Señora de Estíbaliz 28 de abril 1 de mayo de 2020.

Arabako Foru Aldundiaren komunikazio marka hark ezarriko du ofizioz kartelaren erreproduzioan.

Lan finalistak aurretik argitaratu gabeak, beste edozein lehiaketatan saritu gabeak eta hautagaiak eginak izango dira.

300 euro emango zaizkie –dagokion atxikipena izango du– finalistak izan eta oinarri hauetan ezarritako epean kartela aurkezten dutenei. Kartela ez badute epean entregatzen, deialdi hone-tatik kanpo geratuko dira eta ez dute eskubiderik izango diru kopuru hori kobratzeko.

c) Hirugarren fasea. Epaimahaiaren ebazpena eta epaia.

Finalistek aurkeztutako bost kartelak epaimahaiaren azken balioespen fasera igaroko dira, eta hark irabazlea zein den zehaztuko du.

Irabazleak hamalau egun baliodun izango ditu kartela amaitu eta entregatzeko. Kartela amaitzen denean, publikoki aurkeztuko da, eta behar bezalako zabalkundea egingo zaio komunikabideetan.

Hautatuek kartela inprimatzeko formatuan eta modu digitalean aurkeztu beharko dute, betiere 50x70 cm-ko neurriarekin eta nahikoa bereizmen emanda hura inprimatzeko kasuan kasuko sistemen bidez erreproduzitzeko.

Baldin eta CMYK fitxategia bada, 300dpi-ko bereizmena izan beharko du, eta fitxategiaren izenburua eskema honen arabera jarriko da: (hautagaiaren izena)_INPRIMATU.

Adibidez: González de Alaiza_IMPRIMATU.

Gainera, RGB fitxategi bat bidali beharko du euskarri teknologikoan balioesteko, haren izenburua eskema honen arabera jarriko da: (hautagaiaren izena)_PANTAILA.

Adibidez: González de Alaiza_PANTAILA.

Bi bertsiok eskatzen dira lanak balioesterakoan ez dadin aldaketarik egon kolorean.

Irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du –dagokion atxikipena izango du–, kartela bukatuta entregatzen duenean. Kopuru hori bateragarria da finalista izateagatik lortutako 300 euroekin, eta haiei batzen zaie. Hortaz, irabazleak 1.300 euroko ordainketa bakarria jasoko du –dagokion atxikipena izango du–.

Irabazleak kartela erabiltzeko eskubideak lagako ditu; baita han sartutako zatiak edo motiboak ere, Arabako Foru Aldundiak Arabako San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren 2020ko jaietan eta ekitaldiarekin zerikusia daukan sustapen ekitaldi guztietan erabil ditzan. Lan saritua erabili eta ustiatzeko eskubideen lagapen hori edozein formatutan eta edozein komunikabidek zabalkundea egiteko moduan erabiliko da.

Laugarrena. Epaimahai kalifikatzailea

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak izendatutako epaimahai kalifikatzaileak emango du epaia, eta dagokion gutun azala irekita ezagutaraziko du.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak bere 20.5. artikuluan xedatutakoa betez, sari hau emateko sortu den epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izango du, eta eduki beharreko gaikuntza, gaitasuna eta prestakuntza edukiko dute. Lege horren beraren arabera, ordezkaritza orekatua dela ulertuko da, baldin eta lau kide

baino gehiagoko epaimahai eta antzeko organoetan gizon nahiz emakumeek gutxienez ehuneko 40ko ordezkartza badute; gainerakoetan, bi sexuak ordezkartuta badaude.

Bosgarrena. Balioespen irizpideak

Epaimahaiak bere iritziz egokienak diren eta lana egiteko gaitasunik handienak dituzten hautagaiak hautatuko ditu fase guztietan, betiere kalitate, originaltasun eta sormen irizpideei jarraituta; baita aurkeztutako lanen komunikazio potentziala balioetsita ere.

Epaimahaiak erabakiz gero, saria eman gabe utzi ahal izango da.

Epaimahaiaren epaiaren aurka ezin izango da gora jo. Erabakia epaimahaikideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

Seigarrena. Deialdiaren askotariko faseetarako epeak

Lehenengo fasean, hautagaiak DOSIER bidez aurkezteko epemuga: 2020ko martxoaren 4ko 23:59.

Kultura eta Kirol Sailak bost hautatuei jakinaraztea: 2020ko martxoaren 5a.

Bost hautatuek kartela bidaltzeko epemuga: 2020ko martxoaren 17ko 23:59.

Kultura eta Kirol Sailak kartel irabazleari jakinaraztea: 2020ko martxoaren 18a.

Kartel irabazlea bidaltzeko epemuga: 2020ko apirilaren 1eko 23:59.

Zazpigarrena. Oinarri hauek onartzea

Lehiakideek lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen dituzte eta berariaz men egiten diete baldintza horiei.

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak baino ez du deialdi honetan sortzen diren auzi guztiak ebazteko eskumena.

Oharrak: Norberak betetzeko PDF formatuan dauden eranskinak hemen daude eskuragarri: <https://web.araba.eus/eu/hasi/izapideak>.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Kartelaren lehiaketa Arabako Jaiak

**San Prudentzio eta
Estibalizko Andre Maria**

Concurso de cartel Fiestas de Álava

**San Prudencio y
Nuestra Señora de Estíbaliz**

2020

Dosier

I. ERANSKINA • ANEXO I

Ezizena ■ Seudónimo

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Kartelaren lehiaketa Arabako Jaiak San Prudentzio eta Estibalizko Andre Maria Concurso de cartel Fiestas de Álava San Prudencio y Nuestra Señora de Estibaliz	2020
	II. ERANSKINA • ANEXO II	

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

* Derrigorrezko datuak ■ Datos obligatorios

Ezizena ■ Seudónimo *

DATU PERTSONALAK ■ DATOS PERSONALES

Izena ■ Nombre *		
Lehen deitura ■ Primer apellido *		Bigarren deitura ■ Segundo apellido
Identifikazio agiria ■ Tipo de documento identificativo		Identifikazio zk. ■ N.º identificativo *
Sexua ■ Sexo	Adina ■ Edad	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico *
Posta helbidea ■ Dirección postal *		
Telefono mugikorra ■ Teléfono móvil *		Beste telefono bat ■ Otro teléfono

ZINPEKO DEKLARAZIOA:

- Honen bidez, I Eranskinean aurkeztutako obraren originaltasuna eta egiletasuna adierazten dut.
- Lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen ditut.
- Berariaz baimena ematen dut nire datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta sari hau kudeatzeko helburuz bada.

DECLARACIÓN JURADA:

- Por la presente, declaro la originalidad y autoría de la obra presentada en el Anexo I Dosier.
- Acepto las condiciones que regulan esta convocatoria.
- Manifiesto mi consentimiento expreso para que Diputación Foral de Álava trate mis datos personales para la finalidad de gestionar este premio.

Tokia ■ Lugar
Data ■ Fecha

Sinadura ■ Firma:

DATU PERTSONALEN BABESERAKO OHARRA:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizgizun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulatasuneko "Kultura deialdiak" izeneko fitategian sartuko direla. Datu horien tratamendua Arabako Foru Aldundiak kultura ekitaldien berri jakin nahi duten pertsonentzako informazioa kudeatzeko eta zabalteko egiten da.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, lege ezarritako kasuz kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOK aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza 5. zb., 01001 PK, Gasteiz, Araba).

Argibide gehiago: <http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

AVISO DE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES:

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el Fichero denominado "Convocatorias culturales" titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de información y comunicación dirigidas a personas interesadas en actividades culturales.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava (Plaza de la Provincia nº 5, CP 01001 Vitoria-Gasteiz, Álava).

Para más información: <http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>.